

Etekin potentzial txikiagoa.	Etekin potentzial handiagoa.
Arrisku txikiagoa.	Arrisku handiagoa.
1	2
3	4
5	6
7	

Kutxabank Errenta Finko Mistoa 30 Pentsio Fondoaren arrisku-maila 4 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatistikoa da eta ez du aurreitazio iritzirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

●● Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondoan araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada.
●● Lekuz aldatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoren balioa pentsio-fondoaren aktiboaren merkatuko balioaren arabera aldatu daiteke. Inderreko araudiarekin bat etorrira, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarritzko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak www.kutxabank.es webgunean argitaratuta. Kutxabaneko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: www.kutxabank.es/pentsioan

ERRENTA FINKO MISTOA 2022/ABUZZTUA/31

KUTXABANK

FINKO MISTOA 30 PF



PUBLIZITATEA

INBERTSIO POLITIKA

Ondarearen % 30, gehienez ere, fondoaren inbertsio-bokazioarekin bat etorrira inbertituko da, Errenta Aldakorreen; ondarearen gainerako zatia nagusiki inbertituko da ageriko edo eperako gordailuetan, eta errenta finko publiko edo pribatuan. Unean uneko egoeraren arabera, % 2 gaitututa ahal izango da errenta aldakorrek maximoa, etenik gabeko hilabeteko epean, gehienez ere. Fondoak aktibo motekiko duen esposizioa lortzeko, inbertsio zuzenak egin ahal izango dira horietan, baita inbertsioak ere finantza-tresna eratorrietan.

EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	582.486.890,91€
Kudeatze-Komisioa:	%1,30
Gordailatze-Komisioa:	%0,20
Arrisku-profila:	4 1etik 7rako eskalan


2022/08/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5
-%3,02	-%2,85	-%10,26	-%10,59	-%1,38	-%0,49
*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.					
2022	2021	2020	2019	2018	2017
-%10,26	%3,08	%2,13	%8,06	-%5,64	%2,50

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2022/08/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte	%5,34
Lurrunkortasun 3 urte	%5,60



HILEKO IRUZKINA


Abuztua uztaileko rallyak utzi zuen baikortasunarekin hasi zen. Baina erreserba federalaren mezuen bortizkeriak hilaren bukaeran inbertitzaileei ezkortasuna itzuli zien. Mikro mailan, enpresen emaitzak onak izaten jarraitzen zuten; makroan, aldiz, mistoak. Europan, Eurozonako PMI konposatuaren datua kontrakzio zona ukitu zuen, hala ere, espero baino gutxiago. Euro Zonako BPG.ak hazkunde erritmoa mantendu zuen, ta inflazioa berriz %8,9. Asian, Txinak, harritu zuen, industria ekoizpen eta txikizkako salmenta datuek barne eskaeraren ahultasuna argitaratzean. Eta, AEBtan, ISMk asko hobetu zituen itxaropenak, amerikarren konfiantzak tentsazio onak utzi zituen, eta enplegu-txostenak, uste baino sendoagoa izan arren, aurre egin zien tipo

aldakorren igoerari, zeinak, BPGren datu negatiboarekin batera, AEBko ekonomia 2. hiru hilekoan atzeraldi teknikoan kokatzen baitzuen, epe laburreko atzeraldiaren beldurra piztuz. Ezustekoan, Amerikako KPIk espero baino desazelerazio handiagoa izan zuen. Horrek lasaitasuna ekarri zuen eta merkatuei Fedak gogortzeko erritmoa arintzeko esperantza eman zion. Halere, diru agintariek transmititzen zituzten mezuek inflazioaren normalizazioarako bidea oraindik luzea dela gogoratzen zuten. Horrela, inbertitzaileek irrikaz espero zuten Jackson Holeko topaketa. Jerome Powellen diskurtso irmoan, % 2ko inflazioko helburua berreskuratzea entitatearen engungo lehentasuna dela esan zuen, beraz, aldi batez, diru politika murriztailearekin jarraituko duela. Mezua


suntsigarria izan zen. Gainera, Gazpromek Nordstream I hodiaren hornidura hiru egunez guztiz itxiko zuela esan zuenean, presio handia bizi izan zuten prezioek berriz ere Europako gasean eta, ondorioz, inflazioan ere. Aldiz, Asiako erraldioaren jardueraren gutxitzeak ezustekoan tasen jaitiera behartu zuen, eta 1 milioi yuaneko neurri pizgarri berriak eragin zituen. Azkenik, arlo geopolitikoan, Nancy Pelosi estatubatuar Ordezkarien Ganbarako presidentearen Taiwanerako bisita, Pekingo agintariek isun komertzial berriak iragarri zituzten haien subiranotasuna aldarrikatzen duten uhartearen aurka. Hortaz, Nasdaq 100k izan zuen eroriko handiena, % 5,22koa; jarraian, % 4,24rekin, S&P500, eta Dow Jonesek % 4,06 galdu zen Europan; Eurostoxkek % 5,15 eta Ibexek % 3,31. Gainerako

plazetan, japoniar burtsa eta merkatu gainerakorrek oro har erorikoetatik kanpo geratu ziren (+% 1,04 eta + % 0,03 hurrenez hurren). Errenta Finkoan, bund delakoak 72 pb errebotatu zuen, % 1,54ra arte, eta 10 urterako Treasury, aldiz, 54 pb igo zituen, % 3,14ra arte. Periferikoek haien spreadak areagotu zituzten Alemaniarekin, eta zor korporatiboaren arloan, diferentzialaren jaitsera izan genuen. Dibisei dagokionez, dolarrak Fedaren mezu bortitzagoari atera dio onura. Dibisa amerikarraren eta europarraren arteko trukea ia pareko geratu zen (1,0054\$/€). Librak, aldiz, balioa galdu zuen euroarekiko, eta trukea 0,86505£/€ inguru kokatu zen. Lehengaietako dagokionez, petrolioaren prezioak % 11,36 egin zuten beherantz, eta urrearenak % 2,3.

Zorroaren banaketa



Errenta Aldakorrek zorroaren banaketa geografikoa



Oharra: hiru hilabete baino gutxiagoko epemuga duen errenta finkoa likideziaren barne dago.

Dokumentu honen helburua da informazioa ematea, eta ez da inola ere kontratu-dokumentu bat, gomendio bat, aholku pertsonalizatua, eskaintza edo eskaera. Ezin da hartu edozein inbertsio-erabakiren aurretik kontsultatu behar den legezko informazioaren ordezkatzea, eta legezko informazio hori izango da nagusi desadostasunik sortuz gero. Inbertsioak merkatuaren gorabehera lotuta daude, baita baloreetan eta beste finantza-tresna batzuetan inbertitzeari dagozkion beste arrisku batzuei ere. Beraz, Pentsio Fondoaren eskurapen-balioak eta errentagarritasunek goranzko zein beheranzko aldaketak izan ditzakete, eta baliteke inbertitzaile batek ez berreskuratzea hasieran inbertitutako zenbatekoa. Pentsio Fondoaren informazio-dokumentu guztiak (hala nola Oinarritzko Datuen Agiria, Inbertsio Politikaren Printzipioen Adierazpena, aldizkako informazioa, inbertsioen xehetasunak, etab.) entitate merkatuzaitleen webgunean kontsulta daitezke.

Etekin potentzial txikiagoa.	Etekin potentzial handiagoa.
Arrisku txikiagoa.	Arrisku handiagoa.
1	2
3	4
5	6
7	

Kutxabank Errenta Finko Mistoa 30 Pentsio Fondonaren arrisku-maila 4 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatikoa da eta ez du aurreitazio iritzirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

•• Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondon araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada.
 •• Lekuz aldatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoren balioa pentsio-fondoaren aktiboaren merkatuko balioaren arabekoak dira eta galera nabarmenak eragin ditzakete.
 Indarreko araudiarekin bat etorrita, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarritzko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak www.kutxabank.es webgunean argitaratuta. Kutxabaneko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: www.kutxabank.es/pentsioplanak

KUTXABANK PENTSIÓ PLANEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Kutxabank Pentsio Plan desberdinen artean zure aurrezkoa askatasunez mugitzeko aukera, zure profilararen arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzeak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako pentsio plana denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.**

GAINERA, KUTXABANK FINKO MISTOA 30 PLANAK HONAKO ONURA HAUEK IZANGO DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboaren analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

EGUNEROKO JARRAIPENA



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen, Kutxabank Pentsio Planekin: SIMULAGAILUA

PENTSIÓ PLANAK

Planen Erakunde Sustatzailea: **Kutxabank SA.**
 Pentsio Fondon Erakunde Gordailuzaina: **Cecabank SA.**
 Pentsio Fondon Erakunde Kudeatzailea: **Kutxabank Pensiones SAU.**